

# Euskerearen transmisinoa Euskal Herritik kanpo

*Estibaliz Amorrortu*  
Deustuko Unibertsitatea

## Sarrera

Ezaguna da euskerak plazara ez eze mundu zabalera be urten egin dauala. Euskaldunak antzinatik ibili dira Euskal Herritik kanpo, arrantzan, merkataritza-hartuemonetan zein emigrante. Eta kultura eta ikuspegiaz aparte hizkuntza bere eroan dabe mundu zabalera.

Baina hizkuntza bat transmititzeko egoera zehatz eta berezia behar da. Erabilera ugari eta askotarikoa ezinbestekoa da familia bidez hizkuntza bat transmititzeko; ez da nahikoa xede jakin eta gitxi batzutarako komunikazio-hizkuntza izatea.

Artikulu honetan, euskal diasporan, eta batez bere Nevadako Elko herriko euskaldunek daukien euskerearen erabilera eta trasmisinoaren barri emoten da. Gainera, euskaldunek historian zehar han-hemen itxitako aztarna linguistiko batzuk aipatzen dira, hizkuntzaren transmisinoa bermatzeko erabilera bizia eta esparru askotarikoa ezinbestekoa dala erakusteko asmoz.

## 2. Euskerearen aztarnak munduan zehar: euskeran oinarritutako pidgin aldaerak

Arrantzale euskaldunak jadanik XVI. mendean oso urrun joaten zirala ezaguna da. Izan bere, Kanadako ekialdeko kostaldean aurkitutako zenbait eskuizkributan euskerazko berbak agiri dira, XVI. eta XVII. mendeetan arrantzaleek hara eroandakoak, antza: *adesquidé* (adiskide) eta *ania* (anaia), besteak beste (Bakker 1989). Badirudi euskerea eta Ameriketako hizkuntzetan oinarritutako pidgin aldaerak ez zirala hain bitxiak garai haretan.

Hizkuntza bera jakin ez arren, hiztunek xehe jakin batzuetarako komunikatu behar ebenean, pidgin aldaerak garatu dira mundu osoan zehar. Merkataritza-hartuemonetan eta esklabu-egoeretan sarri agertzen dira: batzuk eta besteek berba egin behar dabe baina, danek hizkuntza bera ez dakienez, aldaera sinplifikatu bat garatu behar dabe. Aldaera barri horrek talde boteretsuaren hiztegia izaten dau eta beste taldearen zenbait gramatika-ezaugarri, azken horreek oso sinplifikatuta badagoz bere.

Ikusi daigun Hualdek (1991) emondako Islandiako euskeran oinarritutako pidginaren adibide hau:

- (1) *Christ Maria presenta for mi balia, for mi, presenta for ju bustana*  
'Kristok eta Mariak balea emoten badeustie, nik buztana emongo deutsut'

Adibidean ikusten danez, euskereak hiztegia emon dau (balea eta buztana) eta beste hizkuntzatik dator egitura sintaktikoa (S-A-ZO-OZ: subjektua-aditza-zeharkako objektua-osagarri zuzena). Gramatika aldetik guztiz beharrezkoa ez dana kendu egiten da: izen- zein aditz-morfologia markatu barik agiri da, ez daukagu ez ergatibo markarik subjektuan, ez denbora ez aspektu markarik aditzean, ez baldintzako markarik.

Agirian dago horrelako formak sortzen diranean garrantzitsuena unean uneko komunikazioa dala eta argi dago, baita, horrelako aldaera sinplifikatu batez funtzino komunikatibo asko ezin dana bete. Trukea egiteko, zeozer saldu edo erosteko balio leike baina ez eguneroko bizitzan komunikatu behar dogun guztirako.

Pidgin aldaerak transmititzen diranean, hau da, umeek lehen hizkuntza bezala ikasten dabenezan, garatu egiten dira, funtzino komunikatibo asko bete behar dabezalako. Hori gertatu da Papua Guinea Barrian esate baterako, Tok Pisin aldaera sinplifikatua umeek ikasi ebenean erabat garatu eben eta gaur hizkuntza ofiziala da, 50.000 bat pertsonaren ama-hizkuntza eta milioi bi lagunaren bigarren hizkuntza, *Amaraura* datu-basearen arabera.

Ameriketako esklabu-egoeretan bere, hasieran hizkuntza europar baten (ingelesa, frantsesa, portugesa edo gaztelania gehienetan) oinarritutako pidgin aldaerak sortu ziran, esklabuen matxinadak ekiditeko asmoz euren arteko komunikazioa oztotatzeko tribu eta hizkuntza erabat ezberdineko esklabuak batzen ebezan etxalde baten. Gitxieneko komunikazioa lortzeko pidgin aldaerak sortzen ziran baina egoera horrek luze jota, esklabuek familia izaten eben eta umeek pidgin hori lehen hizkuntza bezala ikasi eta gehiago garatzen eben, euren funtzino komunikatibo guztiak betetzeko gai izan eitean hizkuntza barria. Holan pidgina kreolera bihurtzen zan (Jamaikako edo Haitiko Kreolerak, esate baterako). Kreolera, beraz, ama-hizkuntza bezala ikasitako pidgin aldaera da, familian edo ingurune hurbilean lehen hizkuntza bezala transmititu dana.

Euskeran oinarritutako pidginetan, barriz, ez dau emoten merkataritzaz aparte funtzino komunikatiboetarako zabaldu zanik ezta Islandiar edo Ameriketakoek eta euskaldunek sortutako familiarik egin zanik; beraz, pidgin aldaerak transmititu ordez galdu egin ziran. Komunikazio-funtzino gitxi izanda, erabilera eskasekoak ziran: horrekin lotuta, ez ziran transmititu eta eukien merkataritza-funtzino bakar hori desagertu zanean, galdu egin ziran betiko.

### **3. Euskerea AEBetan XX mendean: familia-bidezko transmisinoa**

Euskereak mundu zabalera urten dauan beste adibide famatua XIX. eta XX. mendeko diasporarena da. Artikulu honetan euskal diaspora osoaz ezin jardun eta Amerikako Estatu Batuetako mendebaldeko euskeraren egoeraz jardungo da.

Euskaldunak 1850eko hamarkadan hasi ziran AEBetara joaten, eta ez Euskal Herritik baizik eta Argentinatik: garai haretan asko ziran Argentinako panpan artalde handiak gobernatzeko ebezan euskaldunak eta horreek kontratatu ziran hasieran Kaliforniako artalde handiekin lan egiteko bere. Handik gixira, XIX. mendearen amaieran, Kalifornian nekazariak nagusitu ziran eta abeltzainek, baita abeltzain euskaldunek bere, Nevadarantza egin eben.

1975 arte oso ugaria eta etengabea izan zan euskaldunen migrazioa AEBetara, mendebalde osora zein New Yorkera.

Orduan arrazoi asko egoan familia eta inguru hurbila itxi eta diasporan bizimodua ateraten ahaleginak egiteko: batetik, Euskal Herriko baserrietan baliabide ekonomiko eskasak egozan, Foru legeak ez eban ixten baserria eta lurra neba-arreben artean partitzen eta, beraz, maiorazgoa ez eukienek eliza ala Ameriketara joatea, beste bide duiunik ez eukien; bestetik, batez bere gerra zibilaren ondorioz, egoera politiko eta soziala oso eskasa zan eta horrek bere bultzatzen ebazan euskaldunak alde egiten; azkenik, Ameriketara aukera ekonomiko handiak egozan: lan aukerak, urrearen irrika eta abar.

Euskal migrazioa katea-migrazioa izan zan: diasporan egoera onean egoan euskaldunak familiartekoak eta herriko lagunak animatzen ebazan bertara joateko. Horrek euskeraren erabilera eta neurri handi baten familia-transmisinoa (gizon asko emazte bila bueltatzen zan Euskal Herrira gero Ameriketara eroateko) bermatzen eban. Horren adierazle Elkun 1995ean bizi zan Nevadako Paradise Valley herriko 81 urteko andreak kontatu eustan pasadizo hau: bera umetan

Paradise Valleyn eskolara joan zanean ume guzti-guztiak euskaldunak ziran eta maistrak ingelesa baino ez ekian.

Immigrazino egoeretan sarritan gertatzen dan bezala, han bere etorkinen etorrerari murrizketak ipinten hasi ziran, kuota sistema ezarrita, 1921ean. Edozein kasutan bere, eta beranduago artzain joateko baimena baino ez baeben emoten bere, euskaldunek aukera izan eben kontratu horreekaz (artzain) joateko. Euskaldunek oso langile on fama handia izanik, arazorik ez eukien artzain-kontratua lortzeko, baserritarrak izanda, artzain esperientzia izan ala ez. Western Range Association-ek, artzaintza-enpresa garrantzitsuenetakoak, bulegoa eukan Bilbo eta Gernikan eta baldintza bi baino ez ei eban ipinten, Elkoko beste euskaldun batek kontatu eustanez: euskalduna izatea eta eskuak, lan gogorra egin izanaren seinale, erakustea.

Arestian esan bezala, 1975 arte etorkin euskaldun asko joan zan Estatu Batuetako mendebaldera baina gero Euskal Herrian egoerak hobera egin eban eta artzain-lana ez zan hain erakargarria bertoko jendearentzat. 70eko hamarkada arte euskaldunak izan ziran nagusi; euskaldunak AEBetara joateari itxi ahala Asturiaseko eta Andaluziako jendea joaten hasi zan. Orain, Perukoak eta beste herri batzuetakoek egiten dabez abelzaintzagaz loturiko beharrak.

Aipatu dan moduan, katean joaten ziran euskaldunak eta horren ondorioz, gaur hainbat estatutan hainbat jatorritako euskaldunak dagoz: Kalifornian alde bietako naparrak eta lapurtarrak batez bere; Nevadan napar, lapurtar eta bizkaitarrak, zenbat eta iparralderago orduan eta bizkaitar gehiago; Idahon bizkaitarrak, baita Oregon, Wyoming, eta Washingtonen bere.

AEBetan zenbat *Basque* (jatorri etnikoa *Basque* aitortzen dabenak) dagoan ez dakigu eta are gitxiago zenbatak gorde daben euskerea. XIX. eta XX. mendeetan zenbat euskaldun joan ziran bere ez dakigu, daukaguzan datu ofizialetan euskaldunak espainol edo frantses

moduan agertzen dira eta. Datu inpresionistikoak baino ezin doguz emon. Gaur egun ez dabe artzain behar egiten eta bertan jaiotakoak guztiz integratuta dagozala esan daiteke.

Gehienek, edo askok behintzat, identitate etnikoa erakusten dabe eta oso harro dagoz. Lehen jendaurreko agerraldi etnikoak XX. gizaldiko 60ko hamarkadan egin ziran. AEBetan 60ko eta 70eko hamarkaden hasieran agerraldi etniko publikoak ugaldtu egin ziran. Fishmanek adierazi bezala (1989: 655), amerikar izatea jatorri etnikoren bat eukiteagaz lotu zan orduan eta identitate etnolinguistiko jakina eukitea amerikar izateko modu berezi eta esanguratsua zan (Fishman 1985:71). Lehen euskal jaialdi publikoa Sparksen, Nevadan, 1959. urtean egin zan *Basque picnica* izan zan. Lehen Euskal Jaialdi Nazionala Elkon egin zan 1964. urtean. 1974an NABO, euskal klub edo etxeen alkarte, sortu zan.

Euskerearen egoerari dagokionez, Douglass eta Bilbaok (1975) *Amerikanuak* liburuan AEBetako euskerearen familia-transmisinoari buruzko datu orokor batzuk emon ebezan:

1. Lehen belaunaldiko amerikar jaiotako gehien-gehienek ama hizkuntza legez euskerea ikasi eben, eta ingelesa eskolan. Baina, salbuespenak salbuespen, danentzat ingelesa da lehen mailako hizkuntza (gehien erabilten dana).
2. Gurasoak elebidunak (frantsesa edo gaztelania eta euskerea) izan arren, familia-hizkuntza beti euskerea izan da. Douglass eta Bilbaok euren datuak jaso ebezan arte holan izan zan; guraso biak euskaldunak izan arren, euskereagaz batera edo alde batera itxita, gaztelania edo frantsesa transmititu dabezan familiak ezagutu dodaz nik.
3. Gurasoen ogibideak eragin handia eukan euskerea gordeteko: gurasoek euskal ostatu edota jatetxean edo abelgintzan behar egin ezkeru, errezagoa zan euskereari eustea. Argi dago zenbat

eta erabilera-esparru eta aukera gehiago orduan eta transmisino handiagoa dagoena.

4. Bigarren belaunaldian amerikar jaiotakoek gitxitan gorde dabe.
5. Neba-arreba zaharragoek errezago eutsi deusie euskereari.
6. Gaur egun beste joera honeek bere azpimarratu behar dira:
7. Oso orokorrean esanda, bakarrik aita eta ama euskaldunak badira eta ingelesa zailtasun handiagaz egiten badabe gordeten da euskerea familia hizkuntza legez.
8. Lehen belaunaldiko asko sarri etorten dira Euskal Herrira eta horrerri esker bere errezagoa da euskereari eustea; bestela, oso gatxa da.

Era berean, orain euskerea heldutan ikasten daben asko dago eta berton ikasteko bere etorten dira hilabete batzutarako baina norma-lean ez daukie komunikazio gaitasun osoa eta euren eguneroko bizitzan oso gitxi erabilten dabenez, errez galtzen dabe.

#### **4. Nevadako Elko herriko euskerea**

Euskerearen aldaera baturik sortu dan ikusteko leku aproposa da Elko. Bertan hainbat euskalkitako hiztunak egonaz aparte, historian zehar euskaldunek eduki daben presentzia oso nabaria izan da eta, beraz, inon horrelako aldaera baturik egotekotan, hantxe egon daiteke. Ikus Amorrortu (2000) eta Zuazo (2008) kontu horretarako.

Elko herri nahikoa barria da, 1868. urtean jaio zan, trenbidea pasaten zan baina ezer bere ez egoan basamortu antzeko eremuan. Lehen euskaldunak Garate eta Altube familiakoak izan ziran, abelgintzari lotutakoak. Gero meatzeetan hasi zan jende asko lanean.

Arestian esan bezala, Elko herriko historia laburrean euskaldunak garrantzitsuak izan dira. 1973. urtean 1500-2000 Basque ei egoan, Elkon, biztanleriaren %20-25 inguru. Euskaldunen presentzia, beraz, oso nabarmena zan, ez bakarrik zenbaki absolutuetan baizik eta euskal komunitateak biztanleria osoan eukan pisua eta indarra kontuan hartuta. Handik aurrera euskal komunitatearen indarra galduz joan zan: Elkoko biztanleria itzel handitu zan euskaldunek bertara joateri itxi eutsien denbora berean. Artikulu honetan emoten diran datuak batu ziran, 1994. urtean, bertako euskaldunek 400 bat Basque egozala estimaten eben, biztanleria osoaren (27.000 biztanle inguru) %1,5 baino ez.

Orain arte zenbat Basque egon daitekezan estimaten ibili gara; kontu oraindik gaxagoa da Elkon zenbat euskaldun dagoen jakitea: orduan, ikerketa hau egin zanean, 1994. urtean, 150 inguru topatu eta 53 alkarrizketatu nebazan (Amorrortu 1995). Hemen emongo diran emaitzak 53 pertsona horreek emondako datuetan dagoz oinarrituta.

Partaide guztietatik 14 amerikar jaiotakoak ziran eta besteak etorkinak, hau da, Euskal Herrian jaio eta heldutan AEBetara joandakoak. Horreetatik, 28 bizkaitarrak ziran, 10 naparrak eta 2 iparraldekoak.

Etorkinen artean gehienak gizonaek ziran (31) eta 9 andrazkoak. 13 naparrak (euretatik 5 Lesakakoak) eta 27 bizkaitarrak, gehienak kostaldekoak, 1900. urtean jaiotakoa zaharrena eta 1958. urtean gazteena. XX. gizaldiko hogeiko hamarkadatik hirurogeita hamarreko hamarkadara bitartean AEBetara joandakoak.

Hizkuntza gaitasun eta erabilereari dagokionez, amerikar jaiotakoek lehen hizkuntza euskera eukien eta ingelesa bigarren, beranduago ikasitakoa. Gehienek gaztelania ulertzen eben eta baita batzuk berba egiten jakin bere. Baina erabilereari begira, kasu guztietan lehen mailako hizkuntza ingelesa zan; euskera oso gitxitan erabilten eben.

Etorkinek lehen hizkuntza euskerea eukien, bigarrena gaztelania edo frantsesa –dana dala, gazteek hobeto ekien erdara zaharrek baino– eta hirugarrena ingelesa. Ingelesa, orokorrean, andrazkoek hobeto ekien gizezkoek baino. Etorkinentzat bere lehen mailako hizkuntza ingelesa zan kasu gehienetan; euskerea tabernan eta etxean baino ez eben erabilten.

Euskerearekiko jarrera dala eta, guztiek erakutsi eben aldeko jarraera eta harrotasuna. Guztiek aitortu eben transmisinoa oso gatxa dala, ia ezinezkoa, familian guraso biak euskaldunak izan ezik.

## 5. Elkoko euskerearen ezaugarri batzuk

Lehenengo eta bat Elkon sortutako forma interdialektal batzuk erakutsiko dira. Gero ukipen-egoerak eragindako kasu batzuk aipatuko dira. Eta azkenean, erabilera eskasak sorturiko aldaketa batzuk. Jatorrizko ikerketaren helburua erakusleetara murriztu zan; hemen aipatuko diran kasuak erakusleen erabilereari edo horreek atara gurean agertu diran beste kontuei dagokiez; esate baterako, hiztegia edo aditz komunztadura.

### 5.1. *Euskalkiak alkarren ondoan: Forma interdialektalak*

Adierazpen interdialektalak dialekto bat baino gehiago ukipen egoeran egonda sortzen diran forma barriak dira (Trudgill 1986: 62); hau da, ez dira euskalki batekoak. Horrelakoak sortu dira Elkon erakusleen erabilerearen inguruan:

- (2) ‘*okeri kosineruer*’  
‘*okin maistra okin*’  
‘*oketan etxeotan*’  
‘*ok soluetara*’  
‘*ek euskaldunak*’  
‘*ok etxiotan*’

Elkoko bizkaitarrek nafarren erakusleak erabilten dabez baina bizkaieraren ordena gordeta, lehengo lau adibideetan bezala; eta Nafarroakoek bizkaieraren ordena hartu eta euren erakusleekin erabilten dabe, azken bi kasuetan ikusten danez.

Aldaketa linguistiko hori ez da kategorikoa, ezin da aurreikusi eta hizkuntza galera estrukturala egon daitekeen adierazle bere izan daiteke: hizkuntza bat oso gitxi erabilten danean aldakortasun handia egoten da, batez bere diasporan, hiztunak euren lehen hizkuntzaren ikuspegi preskriptibistatik urrun bizi diralako (Silva-Corvalán 1994, Dorian 1994).

## *5.2. Euskerea eta ingelesa alkarren ondoan*

Hizkuntza biak ukipen egoeran egonda eta ingelesa erabilera-eremuetan nagusia izanda, euskeran ingelesaren eragina espero daiteke. Baina aldaketa danak ez dabe zertan izan transferentziaren eraginez sorturikoak (ikus Amorrortu 2003: 130-136).

### 5.2.1. DEIXI SISTEMA

Ingelesaren eraginez, badirudi euskerearen hiru graduako deixi-sistema gradu biko bihurtzen hasi dala. Elkoko euskaldunei hiru graduak (hau-hori-bera) ezbardintzeko eskatuta, zailtasun handiak euki ebezan eta sarri forma bera emon eben gradu bitan. Nahasterik handiena bigarren graduagaz ('hori') dago: askok 'ha' erabilten eben bigarren graduako eta beste forma batzuk ('hango', 'beste' edo erlatibozko esaldi oso bat) hirugarrenerako:

- (2) *'Nire tia dago onekin maistrakin / arekin maestrakin / arek beste maestrakin'*  
*'Nagusia yoan da solo orietara / solo aretara / ango soloetara'*

Aldaketa hau bai amerikar jaiotakoek bai bizkaitarrek egin dabe, napar etorkinek baino ez eben sistema erabili espero daikegun moduan.

### 5.2.2. INGELESETIK HARTUTAKO MAILEGUAK:

Ingelesarekin ukipen egoeran egonda, ez da harritzekoa hizkuntza horretatik berba asko hartu izana. Maileguak fonologia, morfologia eta sintaxi aldetik guztiz egokituta dagoz. Batzuk kontzeptu barriak izandatzeko berbak dira eta beste batzuk euskerazko hiztegi arruntaren galera dakarre:

(3)	<i>postofisa</i>	‘post office’	postetxea
	<i>tentia</i>	‘tent’	oihal-denda
	<i>grinkarta</i>	‘green card’	lan egiteko baimena
	<i>nersa</i>	‘nurse’	erizaina
	<i>sauorra artu</i>	‘to take a shower’	dutxa hartu
	<i>estorra</i>	‘store’	denda
	<i>yarda</i>	‘yard’	neurri bat
	<i>aiskrimia</i>	‘ice cream’	izozkia
	<i>kukia</i>	‘cookie’	gaileta
	<i>keika</i>	‘cake’	pastela
	<i>pankeikak</i>	‘pancakes’	opil mota bat
	<i>pikapa</i>	‘pickup’	furgoneta mota bat
	<i>troka</i>	‘truck’	furgoneta mota bat
(4)	<i>buesa</i>	‘boss’	ugazaba, nagusia
	<i>faiteatu</i>	‘to fight’	borroka egin
	<i>txansia</i>	‘chance’	aukera
	<i>krismasetan</i>	‘at Christmas’	gabonetan
(5)	<i>jaieskola</i>	‘High School’	institutua
	<i>eskola andia</i>	‘High School’	institutua

- |     |                           |                 |                            |
|-----|---------------------------|-----------------|----------------------------|
| (6) | <i>mogitu</i>             | ‘to move’       | etxez aldatu               |
|     | <i>kolitxa, kolejiyua</i> | ‘College’       | unibertsitate mota bat     |
| (7) | <i>basko piknika</i>      | ‘Basque picnic’ | euskal jaia                |
|     | <i>basko liburue</i>      | ‘Basque book’   | euskal, euskerazko liburua |

Hemen emondako adibideak batzuk baino ez dira: kasu batzutan kontzeptu barriak erabiltzerakoan hartu dira ingelesezko berbak (3), berton bere erderatik hartu doguzan moduan, baina beste batzutan hiztegi arruntaren galera dakarre maileguez (4). (5) adibideetan kal-koak ageri dira, (6)an esanahiaren aldaketa eta (7) adibideetan adjek-tiboaren aurrerapena.

### *5.3 Azelerazinoa:*

Sarritan jatorrizko lekuan jadanik hasitako aldaketa linguistikoa azeleratu edo azkartu egiten da diasporan. Badirudi horixe dala Elkon topatutako adibide honeetan jazo dana:

- |     |           |                                  |
|-----|-----------|----------------------------------|
| (8) | Erg. sg.  | <i>a andreak</i>                 |
|     | Dat. sg.  | <i>a mutillari</i>               |
|     | All. sg.  | <i>a txabolara</i>               |
|     | Kom. sg.  | <i>au abadekin</i>               |
|     | Dat. pl.  | <i>arek kosinerueri</i>          |
|     | Gen. pl.  | <i>arek neskasarren kriyadue</i> |
|     | Kom.pl.   | <i>onek maisukin</i>             |
|     | Ines. pl. | <i>orrek etxietan</i>            |
|     | All. pl.  | <i>orrek kamputara</i>           |
| (9) | Ines. sg. | <i>onen etxean</i>               |
|     | Dat. sg.  | <i>aren mutillari</i>            |
|     | All. sg.  | <i>orren kabañara</i>            |
|     | Kom. sg.  | <i>aren abadiagas</i>            |

Kom. pl.	<i>orren profesorakas</i>
Ines. pl.	<i>orren etxietan</i>
All. pl.	<i>onen terrenoetara</i>

Erakusle aurreratua absolutibo (8) edo genitiboan (9) ageri da eta izena izen sintagmak behar dauan kasuan. Forma horreek, ez bakarrik amerikar jaiotakoek, etorkinek bere sarri erabilten dabez.

Ezin da pentsatu forma horreek galera estrukturalak eragindako sinplifikazioak diranik (ikus Amorrortu 2000). Izan bere, holango batzuk Euskal Herriko euskeran bere dokumentatu dira Lekeition (Hualde et al 1994): esate baterako, genitibo, benefaktibo, komitatibo eta lokatibo pluralean erakuslea absolutiboan (10) joan daiteke, baita genitibo ez lokatiboa (11) lokatiboaren ordeez bere:

- (10) Kom. pl.      *árek umiákiñ*  
Gen Lok. pl.    *ónek etxiotáko/-etáko*
- (11) Gen Lok pl.    *ónen etxiótako*

Badirudi, Bizkaiko kostaldean hasitako aldaketak Elkon indar hartu eta beste deklinabide kasu batzuetara zabaldu dala: inesibo, datibo, alatibo eta komitatibora. Gogoratu behar da Elkoko bizkaitar gehienak kostaldekoak dirala.

Edozein kasutan bere, adierazpen honeen erabilerea hautazkoa da; aldaketa hau bere ez da kategorikoa. Bizkaian horrelako formak bilatu eta aztertu beharko geunke aldaketaren nondik norakoak ezagutzeko.

#### *5.4. Erabilera eskasak (hizkuntza galerak) sorturiko aldaketak:*

Amaitzeko, amerikar jaiotakoen artean zabal dabilzan galera estrukturalak eragindako aldaketa batzuk aipatu behar dira AE: Ameriketara jaiotakoen Euskerea):

#### 5.4.1. DEKLINABIDE KASUAREN GALERA IZEN MORFOLOGIAN

- (12) AE: *Ama kasi du hemen españolez eta aita hemen ikasi du eskuaraz mintzatzen*  
AE: *Emazte hau ein du lana*  
AE: *emaste hori aitatxi yin da*  
AE *karniseroa eman du aragia kosineroak*

#### 5.4.2. PLURALGILEAREN GALERA IZEN MORFOLOGIAN

- (13) AE: *yende anitz bizi da etxe ontan, etxe huntan, etxe huntak*

#### 5.4.3. KASU KOMUNZTADURAREN GALERA ADITZEAN: AMERIKANU JAIOTAKOEN ARTEAN ALDAKETA KATEGORIKOA DA HAU.

- (14) AE: *an dagoen kosinerueri emon deu kosineruek okelia*  
AE: *niri estauala aituko*  
AE: *areri, areri estot nik (aituten)*

## 6. Ondorioak

Euskal Herritik kanpo euskerea transmititea oso gatxa da. Erakutsi denez, euskeran oinarritutako pidgin aldaeren kasuan erabilera oso urria izan zan eta aldaera horreek erraz galdu ziran. Nevadan bere, gaur egungo diasporako leku danetan moduan, erabilera oso urria da eta, beraz, familia edo sare sozialen bidezko transmisinoa oso gatxa da, besteak beste immigrazioa eten dalako.

Amaitzeko, hizkuntza baten transmisinoa bermatzeko erabilera bizia eta esparru askotarikoa ezinbestekoa dala azpimarratu behar da. Euskal Herritik kanpo erabilera eskasa denez eta Euskal Herriko euskaldunekin hartuemonak urriak diranez, ezinezko emoten dau, salbuespenak salbuespen, transmisinoari eustea.

## 7. Aipatutako lanak

*Amarauna* munduko hizkuntzen datubasea: [www.amarauna-languages-com](http://www.amarauna-languages-com)

AMORRORTU, E. (1994). "Retention and Accommodation in the Basque of Elko, Nevada", *Anuario Seminario de Filología Julio de Urquijo*, 29, 2-3, 407-454 orr. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

— (2000). "Is American Basque a Unified Variety? Structural Changes in the Basque of Elko, Nevada", *Journal of the Society of Basque Studies in America*, 20, 105-118 orr. New York: Society of Basque Studies.

— (2003). *Basque Sociolinguistics: Language, Society and Culture*. Reno: Center for Basque Studies.

BAKKER, P. (1989). "'The Language of the Coast Tribes is Half Basque": A Basque-American Indian Pidgin, 1540-1640". *Anthropological Linguistics* 31/3-4, 117-148 orr.

DORIAN, N. (1994). "Varieties of Variation in a very small place: social homogeneity, prestige norms and linguistic variation". *Language*, 70-4, 631-696 orr.

DOUGLASS, W. A. eta BILBAO, J. (1975). "Ethnicity Maintenance among Basque-Americans". *Amerikanuak: Basques in the New World*, 327-96. Reno: University of Nevada Press.

HUALDE, J. I. (1991) "Icelandic Basque Pidgin". *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 25/2, 427-437.

HUALDE, J. I., ELORDIETA, G. eta ELORDIETA, A. (1994). *The Basque Dialect of Lekeitio*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

SILVA-CORVALÁN, C. (1994). *Language Contact and Change. Spanish in Los Angeles*. Oxford: Clarendon Press.

TRUDGILL, P. (1986). *Dialects in Contact*. Oxford: Blackwell.

ZUAZO, K. (2008). “Ameriketako euskara”. *Euskalkiak euskararen dialektoak*. 169-180 orr. Donostia: Elkar.